

Zabalik dago izena emateko epea HUHEZIn ikasi nahi dutenentzat

2010/02/01

Otsailaren 1ean ireki da izena emateko epea 2010-2011 ikasturtean HUHEZIn ikasi nahi dutenentzat. Epea zabalik egongo da **ekainaren 18a arte**. Gure fakultatearen kasuan, izena eman daiteke honako ikasketetan:

- 3 graduetan: Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza eta Ikus-entzunezko komunikazioa.
- Psikopedagogian.
- Bigarren Hezkuntzako masterrean.



Hiru modu izena emateko

Hiru modu daude izena emateko, eta, denetan, ikasleak adierazi beharko du egin nahi dituen ikasketen lehentasuna:

1. Fakultatearen webgunean, bertako Idazkaritza birtualean.
2. Mondragon Unibertsitatearen edozein fakultatetan.
3. Posta erregistratu bidez. Kasu honetan, ikasleak eskatu beharko dio fakultateari gutunazala bidaltzeko.

Kasu guztietan, honako dokumentazio hau beharko da:

- Inskripzioaren eskaera betetik.
- Nortasun txartelaren fotokopia.

Eskatutako dokumentuetako edozein faltsua dela gertatuz gero, izen ematea automatikoki baliogabetuko da.